

«HAIZEAZ BESTALDETIK» ORAIN HAMAR URTE,
«EXKIXU» NOBELA DURANGOKO AZOKARAKO

Txillardegi: «Bazegoen eta oraindik badago halako mesfidantza bat intelektualeekiko»

Duela hamar bat urte atera zuen Txillardegik bere azkeneko nobela. Gerora, Baionako aspaldiko ipuinak, eta euskara batuaren prozesuan ere erabat sarturik ibili zaigu. Laister izango da kalean idazle honek izkiriaturako ETakide baten historia. Garaiak eskatze bide zuen.

68.an «Elsa Shellen» atera zuenean sekulako kritikak jasan zituen. Azkenekoa, «Haizeaz bestaldetik»: ez du uste konprenitua izan zenik. Baina kritikoren baten onespak animatu zuen; nonbait, asmatu du «Exkixu»rekin ere.

Orain dela bospasei urte, ETakide bati buruzko nobela, ezagutu dituen burkide batzuen gorabeherak kontatzea erabaki zuen. Istoria hau 68tik 74. urte bitartean garatzen da, Altzako baserriko gazte bat du protagonistan, erakundeko kide sinbolikoa. Izatez, Euskal Herriaren arrozte fenomenoa aztertzeko oso egokia bait da Altzakoa.

Pertsonaia 'ezaguna'

Exkixuren estiloko pertsona asko ezagutu ditu Txillardegik. «Horrek ez du esan nahi ETako guztiak beren burua hor ikusiko dutenik, jende desberdina bada. Hala ere, esango nuke, borrokan dabiltzan mordo bat horren ezpalekoak direla, isladaturik aurkituko direla. Hala diote, abenturazkoa dela. Ni

saiatu naiz nobela normala egiten, kontatzen; uste dut ondo egon dela esperimentalismoa, gauza berriak egiten saiatzea, baina finean nobelaren xedea gauza batzuek kontatu eta horien bidez gauzak adieraztea dela pentsatu izan dut beti».

Gazte horren kasua —kautsa— kontatzen da, eta arketipikoa den neurrian jendeak ikusiko du bere burua horretan ala ez. Burgosko Auziaren garaietan pertsonaiak kontzientzia hartzen du, geroago lehen harremanak, garai hartan egiten zen legez, Iparraldera ihes egin eta ezagun piloarekin aurkitzen da bere sorpresarako. Arazoa sentitu eta borrokan sartzea proposatzen diotenean onartu egingo du. Prozesu klasikoak Exkixurena, abenturak mila... ezin esango dugu dena.

Abentura baten testigantza

Bienbitartean Exkixuk garbi dauka marxismoaren bidez espainolismoa sartu daitekeela, «gaur horrelakorik ikusten ez bada ere, bai or-



«Borrokan dabiltzan mordo bat Exkixuren ezpalekoak dira».

dea garai hartan, 70.eko lehen urteetan. ETaren esizioa gertatuko zen jarraian. Hori guztia orain garbi gertatu da, baina orduan zerbait somatzen zen, Baionan jende arras arraroa mogitzen zen. Pertsonaiak hori bera susmatzen du... Frente Obreroan giro hori bazegoen —PCEkoak e.a.—. Nik uste interesantea dela hori horrela aurkeztea, ze gauzak horrela ikusita ETA nola ez zen desagertu mirari bat da, une haietan benetan gaizki zegoen asuntoa: infiltrazio, desbizioak...». Zinez interesgarria prozesuaz jabetzeko, batipat giro hori hurbiletik ezagutu ez duenarentzat.

Arazoa bete-betean bizi du Exkixuk, kezkatutik aurkitzen da, nahiko hertsia ideologia horiekiko, ekinga gogorren aldekoa da, «Hemen

abertzale gogorren artean bazegoen, eta esango nuke badagoela, halako mesfidantza bat intelektualeekiko. Halako ideia zailak... eta azkenean zer?: desbizio espainolistak. Bazegoen halako joera bat, «kontuak utzi eta egur gehiago», hori oso normala zen, eta oraindik egia dela esango nuke».

Estiloaren aldetik, «Exkixu»n ez dago ez 'nouveau roman' ez eta horrelakorik, zerbait kontatzen da eta kito. Istoria lehenengo pertsonan kontatzen da, horrek beti ematen diolarik abantaila, hain kritikatu izan den 'orokile' ustekoarekin alderatuz gero. Exkixuk ikusten duena baino ez du kontatzen, horrek ematen dio egiantzekotasuna.

MIKEL ARAMENDI